

# Berriak

← BERRI GUZTIAK IKUSI

- **ELKARRIZKETA: BIZITEGI**  
2021/05/07



BIZITEGI-Aitor Ipiña

*Bizitegi, 40 urte bazterketarik gabeko gizarte baten alde. Gerentearekin hitz egin dugu. Aitor Ipiñak azaldu digu “zer garen eta zer egiten dugun”*

## **Zer den Bizitegi eta nola hasi zuen bere ibilbidea.**

Bizitegi **duela 40 urte Otxarkoagan** sortu zen proiektu soziala da; **Kaputxinoen anaitasun bat** izan zen ardatza, eta **auzoan desabantaila sozial handiena zuten pertsonak artatzeko asmoz sortu zen**. 80ko hamarkada zen, eta drogaren arazoak, heroinarenak, izugarrizko eragina izan zuen auzo eta gazte askorengan.

Proiektu hau **auzo bateko konpromiso pertsonaletik sortu zen**, komunitate batean, pertsona ahulenak artatzeko espazioak eta konplizitateak sortuz.

Pertsonekin egindako lan horretan beste kontu bat planteatu zen une jakin batean: etxebizitza izan baina laguntza behar duen pertsona batek laguntza behar baina etxerik ez dutenekin parteka zezala etxebizitza hori. Horrela sortu zen lehenengo **BIZITEGI**; oso dinamika positiboa sortu zuen, eta denbora laburrean 20 etxebizitza inguru zeuden.

Ondoren, BIZITEGI beste alor batzuetan ere hasi zen: buruko gaixotasunen bat izan eta baztertuta zeuden pertsonekin eta etxerik gabeko pertsonekin, hain zuzen ere.

## ***Zein jarduera du, eta non daude?***

Gaur egun, gure jardueraren helburu nagusia bazterketa-egoeran dauden pertsonen alde lan egitea da, eta hainbat eremu ditu oinarrian: **gaixotasun mental larria eta gizarte-bazterketa duten pertsonen, adikzio-arazoak dituztenen eta etxerik gabekoen gizarte- eta osasun-arloak**. Eguneko baliabideen, ostatuen eta laguntza-ekipoen sare zabala dugu, pertsonei beren bizitzan laguntzeko.

Gure jarduera Bizkaian egiten dugu, eta, batez ere, Bilbon.

**Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuarekin** adostuta lan egiten dugu, eta **Bilboko Udaleko** etxerik gabeko pertsonen zerbitzuak kudeatzen ditugu.

Gainera, proiektu propioak garatzen ditugu, eta horiek bereziki nabarmendu beharra dagoela ikusten dugu. Gaur egun, **etxerik gabeko emakumeei arreta emateko Borobiltzen** proiektua ezinbestekoa da Bilboko pertsona ahulenak artatzeko.

## ***Zein da zuen proiektua, eta nola prestatzen duzue estrategia?***

**Bizitegi bazterketarik gabeko gizarte baten alde lan egiten duen proiektua da**; pertsonak lagundu eta babestu nahi ditugu, baina **gizarte inklusiboago** baten eraketan ere eragina izan nahi dugu. Izan ere, horrek aukera ematen digu herritarrengana, komunitatearengana eta, ondorioz, gizarte osoarengana irekitzeko.

**Gizarte inklusiboak iraunkorra izan behar du**; izan ere, pertsona guztiekin, bai orain bizi direnekin bai iristen direnekin abegitsua izateaz gain, **ingurumena errespetatu behar du**.

Ikuspegi horrek gure **kudeaketa-estiloari** ere eragiten dio; izan ere, azken urteotan kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren kudeaketara bideratuta dago, eta **kudeaketa aurreratuko ereduak eta garapen jasagarriko helburuak** hartu ditu erreferentziazat.

## ***Hirugarren sektore sozialeko erakunde gisa, Euskadin bada pertsonen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen esku-hartze sozialeko eredurik?***

Ikuspegi historikotik begiratuta, BIZITEGI hasi zenean euskal administrazioa sortzen ari zen, eta, denborarekin, gizarte-zerbitzuen sistema bat eratu da, aurrerapauso handia eman duena herritarren eskubide subjektiboak aitortzeko. Horrek guztiak eragina du gutxieneko errenten sisteman (DSBE) eta arreta jasotzeko eskubidean, pertsona baten gizarte-bazterketa baloratzekoan.

Asko dago egiteko, baina aurrerapen handia egin dela aitortu beharra dago.

## ***Zenbateko garrantzia dute boluntarioek?***

**BIZITEGI proiektu boluntarioa da sortu zenetik.** Eboluzionatu egin du, baina gaur egun erakunde profesionala denik ezin dugu esan, **boluntarioek zeregin garrantzitsua** baitute; boluntario hauei esker harreman aniztasuna dugu, eta horrek inklusio-prozesu pertsonalak asko normalizatzen eta aberasten ditu.

## ***Nola hobetu dezakegu gure gizarte-eredua?***

Oraindik elementu garrantzitsuak ditugu hobetzeko. **Gizarte-zerbitzuen zorroa osorik garatu behar da, eta baztertuta dauden pertsonen eskura jarri behar dira eskubidez dagozkien zerbitzuak.**

Etxebizitzarena arazo handia da oraindik ere. Etxebizitza duin eta eskuragarria izatea oso garrantzitsua da bizi-proiektu autonomoak garatzeko, eta hori esatean gazteak izaten diren arren gogoan, baztertuta dauden pertsonekin ere gauza bera gertatzen da.

## ***40 urteko ibilbidea, zein helburu eta erronka dituzue etorkizunari begira?***

Gure helburua hasierako bera da, eta ondorioz, arreta berezia eskaintzen diegu sortzen ari diren bazterketa modu berriei. Gizartea globalizatu egin da, eta sistema ekonomikoa eta soziala etengabe aldatzen ari dira; beti adi egon behar da, aldaketa horiek alde batera uzten baitituzte pertsona batzuk.

Erronka gisa 2 giltzarri identifikatu ditugu:

. **Genero-ikuspegia.** Alor honetan egiteko asko dago, inklusio-lanean genero-ikuspegia benetan ezarri beharra baitago. **Pobreziak emakume-aurpegia du oraindik ere**, baina, hala ere, zerbitzu maskulinizatu asko dago. Beste ikuspegi bateko zerbitzuak sortu behar dira.

. Beste giltzarrietako bat **lan komunitarioa** da; erreferentziazko eta gertuko inguruak garatu beharra dago, pertsona guztiok bizitza egoki eta esanguratsurako behar ditugun harremanak izateko eta garatzeko.

<https://www.mutualia.eus/eu/elkarrizketa-bizitegi/>

<https://www.mutualia.eus/es/entrevista-bizitegi/>